

IFLA-UNESCO Manifestua, Liburutegi Publikoei buruzkoa (2022)

Gizartearen eta gizabanakoen askatasuna, oparotasuna eta garapena oinarritzko giza balioak dira, baina balio erdiesteko modu bakarra herritarrek, ongi informatuta, eskubide demokratikoak erabiltzeko eta gizartean eginkizun aktiboa izateko duten gaitasuna gauzatzea da. Parte-hartze eraikitzailea bideratzeko eta demokrazia sendotzeko, ezinbestekoa da hezkuntza egoki bat jasotzea, baina baita ezagutza, pentsamendua, kultura eta informazioa askatasunez eta mugarik gabe eskuratzeko aukera izatea ere.

Liburutegi publikoa –ezagutzarako atea– oinarritzko baldintza bat da bitzita osoko ikaskuntza ziurtatzeko, erabakiak askatasunez hartzeko eta gizabanakoek eta gizarte-taldeek kultura-arloan aurrera egingo dutela bermatzeko. Liburutegiak ezagutzaren gizarte sendoak sustatzen ditu, eta, horretarako, era guztietako ezagutza (ezagutza zientifikoa eta tokikoa barne) eskuratzeko, sortzeko eta trukatzeko ahalbidetzen du, oztopo komertzialik, teknologikorik edo juridikorik gabe.

Herrialde guztietan, baina bereziki garapen-bidean daudenetan, hezkuntzarako eskubideak eta ezagutzaren gizarteetan eta komunitatearen kultur bizitzan parte hartzeko eskubideak ahalik eta jende gehienarentzat eskuragarri izatea bermatzen laguntzen dute liburutegiek.

Manifestu honen bidez adierazten dugu UNESCOk uste osoa duela liburutegiek hezkuntzaren, kulturaren, inklusioaren eta informazioaren aldeko indar bizi gisa duten garrantzian, bai eta garapen jasagarria lortzeko eta gizabanakoek beren pentsamenduaren bidez bakea eta ongizate espiritualak erdiesteko funtsezko eragile gisa duten garrantzian ere.

Beraz, UNESCOk liburutegi publikoen garapenean modu aktiboan laguntzera eta parte hartzera adoretzen ditu agintari nazionalak zein tokikoak.

Liburutegi Publikoak

Liburutegi publikoak tokian tokiko informazio-guneak dira, erabiltzaileei mota guztietako ezagutza eta informazioa eskuratzeko aukera ematen dietenak. Ezagutzaren gizartean funtsezko osagaia dira, eta etengabe egokitzen dira komunikazio-modu berrietara, informaziorako sarbide unibertsala emateko eta gizabanako guztiek informazio hori modu esanguratsuan erabil dezaten ahalbidetzeko, hori baita, hain zuzen, haien xedea. Ezagutza ekoizteko, informazioa eta kultura trukatzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko gune iragarri bat eskaintzen dute.

Liburutegiek komunitateak sortzen dituzte, modu proaktiboan jarduten dute erabiltzaile berriengana iristeko, eta entzute eraginkorra aldarrikatzen dute, tokiko beharrak aseko dituzten eta bizi-kalitatea hobetzen lagunduko

duten zerbitzuen diseinua sustatze aldera. Erabiltzaileek konfiantza dute beren liburutegietan, eta liburutegi publikoek, berriz, komunitateak modu proaktiboan informatuta edukitzea dute helburu.

Liburutegi publikoek pertsona guztiak informazioa eskuratzeko duten eskubide-berdintasunean oinarrituta ematen dituzte zerbitzuak, pertsona horien adina, arraza, generoa, erlijioa, nazionalitatea, hizkuntza, gizarte-egoera edo beste zeinahi ezaugarri bereizgarri edozein dela ere. Zerbitzu eta material bereziak eskaini behar dizkiete arrazoi bategatik edo besteagatik eskaini ohi diren zerbitzu eta materialak erabili ezin dituzten erabiltzaileei, hala nola hizkuntza-gutxiengoei, ezgaitasunak dituztenei, trebetasun digital eta informatiko mugatuak dituztenei, irakurtzeko eta idazteko trebetasun eskasak dituztenei, edo ospitaleetan edo espetxean dauden pertsoneri.

Adin-talde guztiak beren beharrekin bat datozen materialak aurkitu behar dituzte bertan. Liburutegietako funtsek eta zerbitzuek era guztietako bitartekoak, teknologia modernoak nahiz material tradizionalak izan behar dituzte eskuragai. Funtsezkoa da kalitate handikoak izatea, tokian tokiko beharretara eta baldintzetara egokituta egotea eta komunitatearen kultura- eta hizkuntza-aniztasuna islatzea. Materialez gizaratearen egungo joerak eta bilakaera islatu behar dituzte, baita gizabanakoen ahaleginaren eta irudimenaren ondoriozko garapena ere.

Funtsek eta zerbitzuek ez dute inolako zentsura ideologiko, politiko edo erlijiosorik jasan behar, ezta presio komertzialik ere.

Liburutegi publikoen eginkizunak

Ondoko eginkizun hauek –informazioarekin, alfabetatzearekin, hezkuntzarekin, inklusioarekin, herritarren parte-hartzearekin eta kulturarekin zerikusia duten zeregin nagusi hauek– liburutegi publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuen funtsa behar dute izan. Eginkizun horien bidez, liburutegi publikoek Garapen Jasangarriko Helburuak lortzen eta gizarte bidezkoagoak, gizatiarragoak eta iraunkorragoak eraikitzen laguntzen dute.

- Era guztietako informazioa eta ideiak zentsurarik gabe eskuratzeko aukera eskaintzea, eta hezkuntza formala eta informala maila guztietan sustatzea, bai eta bizitza osoko ikaskuntza ere, pertsonak modu iraunkor, boluntario eta autonomoan eskuratu ahal izan dezaten ezagutza.
- norberaren sormena garatzeko aukerak eskaintzea, eta irudimena, sormena, jakin-mina eta enpatia sustatzea;
- haurren artean irakurketa-ohiturak sortzea eta sendotzea, lehenengo urteetatik helduarora arte;
- alfabetatze-programa eta -jardueretan laguntzea eta parte hartzea, irakurketa- eta idazketa-trebetasunak garatzeko, eta adin-talde guztietako pertsonen alfabetatze mediatiko eta informazionalaren eta trebetasun digitalen garapena erraztea, gizarte informatu eta demokratiko bat lortzen laguntzeko.
- komunitateei zerbitzuak aurrez aurre eta urrutitik ematea teknologia digitalen bidez, eta, ahal den neurrian, informazioa, funtsak eta programak eskuratzeko aukera eskainiz;
- pertsonak komunitatearen inguruko era guztietako informazioa eskura ahal izan dezaten eta komunitatea antolatzeak aukerak izan ditzaten bermatzea, liburutegiek gizarte-sarean duten eginkizun nagusia aitortuta;
- komunitateei ezagutza zientifikoa eskuratzeko aukera ematea –erabiltzaileen bizitzan eragina izan dezaketen osasun-alorreko ikerketen eta informazioaren emaitzak eskuratzeko, adibidez–, bai eta aurrerapen zientifikoetan parte hartzekoa ere;
- tokian tokiko enpresei, elkartei eta interes-taldeei informazio-zerbitzu egokiak ematea;
- tokiko eta jatorrizko komunitateen datuak, jakintza eta ondarea (ahozko tradizioa barne) zaintzea eta eskuratzeko aukera eskaintzea, eta, horretarako, tokiko komunitateek, beren nahiaren arabera, lortu, zaindu eta partekatu behar diren materialen identifikazioan rol aktiboa izan dezaketen ingurune bat

eskaintzea;

- kulturen arteko elkarrizketa sustatzea eta kultura-aniztasuna bultzatzea;
- Kultur adierazpenen eta ondarearen babesa eta haietarako sarbide esanguratsua, arteen balorazioa, eta ezagutza, ikerketa eta berrikuntza zientifikoetarako sarbide irekia sustatzea, bitarteko tradizioetan eta material digital eta digitalizatuan adierazten diren moduan.

Finantziazioa, legedia eta sareak

Liburutegi publikoek eta haietan eskaintzen diren zerbitzuek, printzipioz, doakoak behar dute izan. Liburutegi publikoak agintari nazionalen eta tokian tokikoen erantzukizuna dira. Legedi berezia eta eguneratua izan behar dute, nazioarteko itun eta akordioekin bateragarria, eta gobernu nazionalak eta tokikoek finantzatu behar dituzte. Kulturari, informazio-hornikuntzari, alfabetatzeari eta hezkuntzari dagokienez, epe luzeko estrategia ororen funtsezko osagai izan behar dute.

Aro digitalean, egile-eskubideei eta jabetza intelektualari buruzko legediak eduki digitalerako sarbidea arrazoizko epeetan lortzeko eta eskaintzeko gaitasuna bermatu behar die liburutegi publikoei, baliabide fisikoekin gertatzen den bezala.

Herrialde bateko liburutegien arteko koordinazioa eta lankidetzak lortzeko, legediak eta plan estrategikoen liburutegien sare nazional bat definitu eta sustatu behar dute, hitzartutako zerbitzu-arauetan oinarrituta.

Liburutegi publikoen sarea diseinatzeko orduan, kontuan izan behar dira bai liburutegi nazionalak eta eskualdekoak, bai espezializatuak eta ikerketarakoak, bai eta eskola, institutu eta unibertsitateetakoak ere.

Funtzionamendua eta kudeaketa

Liburutegiei buruzko politika argi bat formulatu behar da, helburuak, lehentasunak eta zerbitzuak tokiko komunitatearen premien arabera definituko dituenak. Toki bakoitza ondo ezagutzeak eta komunitatearen partaidetzak funtsezko garrantzia dute prozesu horretan. Gainera, ezinbestekoa da tokiko komunitateek zeresana izatea liburutegiekin zerikusia duten erabaki-hartzeetan.

Liburutegi publikoak modu eraginkorrez antolatu behar dira eta funtzionamendu-arau profesionalak izan behar dituzte.

Komunitateko kide guztiek zerbitzuak fisikoki edo digitalki erabiltzeko aukera izan behar dute. Horretarako, liburutegi publikoetako eraikinak ongi kokatuta eta hornituta egon behar dira, irakurtzeko eta ikasteko instalazio onak izan behar dituzte, teknologia egokiak, eta erabiltzaileentzako egokia den ordutegi batean eman behar dituzte zerbitzuak. Halaber, hedapen-zerbitzuak eskaini behar dituzte, liburutegira joaterik ez dutenentzat.

Liburutegien zerbitzuak landa-eremuetako eta hiri-eremuetako komunitateen beharretara egokitu behar dira, bai eta herritar babesgabeen, premia bereziak dituzten erabiltzaileen, erabiltzaile eleaniztunen eta tokiko jatorrizko herrien beharretara ere.

Liburuzainak bitarte aktiboak dira erabiltzaileen eta baliabide digital zein tradizionalen artean. Liburutegiek zerbitzu egokia emango badute, ezinbestekoa da behar adina giza baliabide eta baliabide material edukitzea, bai eta egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko beharrezko prestakuntza profesional eta iraunkorra duten liburuzainak izatea ere. Behar adinako baliabideen kantitatea eta kalitatea zehazteko, liburuzain profesionalekin hitz egin behar da.

Hedapen-programak eta erabiltzaileen prestakuntzarako programak ezarri behar dira, erabiltzaile horiei

liburutegietako baliabide guztiak aprobetxatzen laguntzeko. Egungo ikerketak liburutegien inpaktua eta datu-bilketa ebaluatu behar ditu, liburutegiek politikak formulatzeko arduradunentzat dakarten onura soziala frogatzeko. Datu estatistikoak epe luzera bildu behar dira, liburutegiek gizarteetan dituzten onurak ondorengo belaunaldietan ikusten baitira.

Itunak

Itunak egitea funtsezkoa da liburutegiak publiko zabalago eta askotarikoago batengana irits daitezen. Bazkide egokien lankidetzaz bideratzeko neurriak bermatu behar dira —adibidez, erabiltzaile-taldeekin, eskolekin, gobernuz kanpoko erakundeekin, liburutegi-elkarteekin, enprekin eta tokiko, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko beste profesional batzuekin.

Manifestuaren aplikazioa

Herrialde mailako eta tokian tokiko erabakiak hartzen dituzten arduradunei eta, oro har, mundu osoko liburutegi-komunitateari, Manifestu honetan azaldutako printzipioak aplikatzea eskatzen diegu.

2022ko uztailaren 18a